

## GIL 143 Pauleko igeltsu-meatzeak



Paulgo meatzeko sarrera bi meazuloekin.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42°47' 12,19" N  
Long. 2°56' 38,42" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 504.579,67 m  
Y: 4.737.132,33 m



### Nola iritsi

Paul herria A-2622 errepidean dago, Añana eta Pobesen artean. Herriko elizatik hurbil dagoen iturrian, legarrezko mendi-bide bat hasten da hegoalderantz, eta, dozenaka metro batzuk aurrerago, adar bat ateratzen da igeltsu-hondakindegia-ondan, meazulo-ra doana. Sarbidea landarediak estalita dago neurri handi batean.

### GILaren deskribapen laburra

EAEko igeltsu-meatze bakanetako bat da. Meatzea igeltsuzko pakete dekametrikoko aski bertikal batean dago, ekialde-mendebalde norabidean, Añanako diapiroaren egituraren ertzetik gertu.



Meazuloak bertan behera utzita daude, eta arriskutsuak dira.

Meatzeak 10 bider 8 metroko bi meazulo ditu. Haietako bat galerietarako sarbidea zen; bestea minerala ateratzeko erabiltzen zen, kargaleku baten bidez, zeina oraindik han baitago. Meazuloa luizi handiz josita dago, eta sarrera nahiko arriskutsua da. Barnealdea pilarez egindako ustiategi bat da; pilareetan, igeltsuen bandak ikusten dira, bai eta "enara-isats" formako kristal on batzuk ere, tabular eta prismatikoak.

Haitzuloaren sarreran dagoen hormatzarrak adibide bikaina da Keuperreko buztin eta igeltsuen izaera ulertzeko.

## Behatzeko punturik onena

*In situ*, baina meazuloan sartu gabe, behera etortzeko arriskua baitago.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 78, GIL 130, GIL 116, GIL142, GIL 54, GIL 29.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 7, GIL 142, GIL 116.



Sarreran, igeltsuzko kristal handi batzuk ikus daitezke.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak			●	
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- EGUILUZ, L.; LLANOS, H.; URIBE-ECHEBARRIA, P.; CAMARA, F.; GONZALEZ DE ASPURU, S. eta CERRAJERIA, J. I. (1988).- *Itinerarios ecológicos de Alava*. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritzza), 110 or.
- EGUILUZ, L.; LLANOS, H. eta ULIBARRI, M. A. (1983).- "*El substrato rocoso elemento activo*". *Álava en sus manos*, 1. liburukia, 105-134 or.
- EGUILUZ, L. eta LLANOS, H. (1988).- "*Aspectos hidrogeológicos del diapiro de Salinas de Añana (Alava)*". *Actas II Congreso geológico de España*, 2. bol. 383-386 or.
- EGUILUZ, L. eta LLANOS, H. (1988).- "*El diapiro de Salinas de Añana: Un ejemplo de ascenso diapírico modificado por esfuerzos cizallantes.*" *Actas II Congreso geológico de España*, 2. liburukia, 131-134 or.
- MAGNA, 137. zk.
- EVE, 137-II zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. eta González-Tapia, J. R. (1992). "*Aspectos geóticos del Diapiro de Salinas de Añana*". *Actes du Colloque International du Sel*. Argitaletxea: Jurade du Sel de Salies-de-Bearn, 145-155 or.